



Sukaldaritza jardunaldiak

Hurrengo astean, astelehenetik ostiralean 19:00etan kulturetxeko hitzaldi aretoan, Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun sailak Eguberrietako sukaldaritza errazeko jardunaldiak antolatuta ditu. Datoren egun berezientzat ideiak lortzeko hitzordu aproposa. /4

Kulturetxeko kafetegiko kontzertuak kudeatzen jarraituko du Xpression-ek

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak eta Xpression kultur elkarteak hitzarmena berri zuten atzo. Ana Urchueguia alkateak eta Xpression kultur elkartearen Jokin Telleriak 2010. urterako hitzarmena sinatu zuten.

Honen bidez, hurrengo urtean zehar Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian 13 emanaldi antolatuzeko konpromisua hartu du kultur elkarteak. Gainera, berrikuntzak egongo direla aurreratu zuen Jokin, "aurten arte eszenikoa eta kafe antzerkia."

Ohikoa den bezala emanaldiak ostiralean izango dira, hamabost egunero 20:00etan, eta lehen hitzordua urtarrilaren 22an izango da.

Kontzertua

Baina hurrengo urteko hitzarmena indarrean egon baino

lehen, Xpressionek gaur bertan urteko azken emanaldia antolatuko du kulturetxeko kafetegian 20:00etan.

Fusionk!!! taldearen indie elektro countrya entzuteko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren herritarrek.

Kafetegia ustiatu

Honetaz gain, Gazteria eta Festetako sailak udalerriko irabazi asmorik gabeko GKE, entitate eta taldeei Xpression zirkuituko kontzertuetan kultur etxeko kafetegiko zerbitzua haien gain hartzearen eskaintza mantentzen du.

Era honetara, udalerriko agente ezberdinak Gazteria sailaren ekintzetan inplikatzeko lanari jarraipena ematen dio eta, aldi berean, hauen kausan laguntzen die. Izan ere, ekimen honen bidez, kafetegiko zerbitzuarekin lortzen den diru sarrera taldeak



Udalak eta Xpression-ek 2010. urterako hitzarmena sinatu zuten atzo.

duen helburuan laguntzeko izango da.

Kafetegiko zerbitzua hartzeko eskaera instantzia bat beteta egin behar da Udaletxeko Erregistroan. Egunen banaketa jasotzen diren eskaeren

arabera egingo da.

Azken kontzertuetan Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak izan dira arduradun eta datorren urterako udalerriko GKE baten eskaera ere badago. •

Atez ateko bilketaren alde

Lasarte-Oria Bizirik! elkarteak deituta, lehengo ostiralean, abenduaren 4an, elkarretaraztea egin zen herriko Udaltxearen aurrean.

Emandako hitza errespetatu. Atez atekoa orain lempen, hainbat herritar bildu ziren herriko Udaltxearen aurrean emandako hitza mantentzeko eskaera eginez, hau da, Lasarte-Orian atez ateko hondakinen bilketa sistemaren esperientzia martxan jartzea.

Elkarretaratze hau, aurreko asteetan atez ateko bilketa sistemaren alde burutu ziren hainbat ekitaldiekin bat zetorren, hala nola, hitzaldi bat. •



Herritar talde bat bildu zen lehengo ostiralean, Udaltxearen aurrean emandako hitza bete dezan eskatzeko.

AISIALDIA/ 3

Amaraun Ludotekan jostailu mailegua egongo da

GIZARTEA/ 3

Musika klasikoaz gozatzeko aukerak asteburu honetan

KIROLA/ 6

Ostadarren bazkide kanpaina abian da


ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521


SUGATE SUGATE SUGATE



• Gremioen koordinazioa
• Ordenadore bidezko diseinua
• Konpromisorik gabeko aurrekontuak
• Horma- armairuak
• Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
LASARTE-ORIA
www.sugate.net






Neure kabuz



Jolasak eta Jostailuak

Urteko sasoi esanguratsua da hausnarketa hau konpartitzeko: jolasak helburu dira edo eta bitarteko?

Jendartean eta bereziki umeei, jolasaren bidez (jolas libre edo eta jostailuekin batera egiten den jolasa), zentzuak garatzen dituzte, pertsonak ezagutzen ikasten dute, besteekiko portaerak eta errespetu-ohiturak bereganatzen dituzte, irudimena eta fantasia lantzen dute, pertzepziarako gaitasuna eta arreta garatzen dute, oromina lantzen dute, eta abar. Jolasari esker, inguruarekin komunikatzen ikasten dute. Besteak beste gainera, bizi diren jendartearen arauak eta portaerak ikasten eta barnatzen dituzte. Zentzu honekin, jolasa garrantzi handiko elementua izango da haurra- ren garapenean.

Jolasa, umeen ekintza garrantzitsuenetarikoa bat da, haurra- ren berezko bide naturala da. Jolasa behar dute ikasteko; azken finean, hauen bidez, konpartitzen, galtzen, amets egiten, komunikatzen, laguntzen, irabazten, errespetatzen... ikasten dute.

Jolas eta jostailuak bitarteko izan behar dutela defendatzen dut nik. Bitarteko diren jarrera eta kontzepzioarekin egin behar ditugula gure txiki- en- tzako jolas eta jostailu aukeraketak uste dut nik, ematen zaion baino garrantzi gehiago emanaz gainera. Jostailu kantitateak baino jostailuaren kalitatea eta jolastan igarotzen den denboraren kalitatea dira niretzat garrantzitsuagoak.

Izan daitezela beraz Olen- tzero eta Mari Domingi- ren opariak jendartean eta bereziki etxeko txiki- en artean parekidetasuna eta bizikidetzat sustatuz, etorkizun berri bat eraikitzeko oraingo tresna.

Ainara Lasara

Zorion-agurrak



Haizea

Zorionak Haizea zure 6en urtebetetzean! Muxu handi bat etxeko- en partetik



David

Zorionak zure urtebetetzean. 7 muxu aita, ama eta Borjaren partetik. Ondo pasa maritomas



Hugo

Zorionak zure 1. Urtebetetzean amona Carmen, aitona Emilio eta osaba Ionon partetik.



Michael

Happy birthday! Ttak! Asmatu dek! Buckin- hamea joan aurretik potea hire kontu!



Eneritz

Zorionak eta 9 muxu handi familiaren partetik. Ondo pasa!



Libe

Zorionak printzesa! 2 muxu potolo Enara, Aitaxo eta Amatxoren partetik



Maite

Zorionak senarra eta semearen partetik. Baz- karia zure kontu!



Ander

Zorionak pottoko zure 1.go urtebetetzean. Muxu handi bat Asier, aita eta amaren partetik.



Naroa

Zorionak printzesa. Txokomarrubizko 9 muxu. Aitaxo, amatxo eta Unairen partetik.

Guardiak

Ostirala, 11

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Larunbata, 12

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 13

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 14

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteartea, 15

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 16

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 17

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Biko- tearentzat egokia. Harremanetarako zenbakia, 657 708 866.

• Landetxe bat salten da Alfaro, Errioxan. Terreno eta igerilekuarekin. 2 logela, egongela tximiniarekin, sukaldea, komuna eta portuxea. Harremanetarako zenbakia, 675 702 428.

Salerosketak

• Mountain bike bizikleta bat salgai. 8-10 urteko haurarentzat da eta kalitate handikoa. Oso egoera onean dago. Salneurria 100 eurokoa da. Harremanetarako zenbakia, 656 781 177.

• Audi 100 bat salten da, 250 cc eta turbo diesela injezio-sistemarekin. Baldintza onean eta ondo zaindua. Harremanetarako zenbakia, 687 851 713 (Bixente).

Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar da hiru urteko haur bat zaintzeko. Ikas- tolan jaso eta bazkaria eman, eguerditik laurak arte. Harremanetarako zenbakia, 646 645 445

• Ingelesko magisteritzako 3. mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehenengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelese edota beste ikasgai batzu). Intere- satuak deitu zenbaki honetara: 943372874/635720017 Urtri.

Lan-eskariak

• Klase partikularrik ematen dira: euskara, lengoia, matematika, ingelese... Harremanetarako zenbakia, 943 362532.

• Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntzan, garbiketa edo base- rri batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772 (Sshakeel).

Bestelakoak

• Ezkontza zein ekitaldietan abes- teko kantari lirikoa. Interesatua bazude maketa bat entzungai daukat. Harremanetarako zenba- kia, 690 784 113.

• Katuak oparitzen dira. 6 katu ditut oparitzeko, hilabete inguru dute eta arraza arruntekoak dira. Harremanetarako zenbakia, 647 821 361.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

<p>Jaiotzak</p>  <p>Luis Martin De los Santos Rodriguez, abenduaren Sean Iker Rey Gonzalez, abenduaren 3an Izaro Iriarte Cincunegui, abenduaren 3an Leire Sofia Ponce Borjas, azaroaren 28an</p>	<p>Heriotzak</p>  <p>Jose Mº Lizaso Lasa, abenduaren 6an 62 urte zituela Alejandro Sanz Lopez, abenduaren 3an 77 urte zituela Agustina Elicegui Olarra, azaroaren 25ean 101 urte zituela José Pando Martin, azaroaren 25ean 78 urte zituela</p>
--	---

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Sukaldaritza errazeko jardunaldiak

Abenduaren 14tik 17ra antolatu dira jardunaldiak kultur etxeko hitzaldi aretoan

Eguberriak ate joka ditugu. Horregatik, urtero legez, Lasarte-Oriako Udaleko Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Sailak Eguberrietako sukaldaritza errazeko jardunaldiak antolatu ditu abenduaren 14tik 17ra. Lau egun hauetan etxea nola apaindu daitekeen ikasteaz gain, Eguberrietako egun seinalatueta-ko afari eta bazkarien menua prestatzeko proposamenak emango dituzte, baita nola egiten diren azaldu ere.

"Iazko jardunaldiek ekologismoa izan zuten ardatz nagusia. Hauetan nekazaritza ekologikoaren berri eman zen eta Eguberrietako egunetan kontsumo arduratsua sustatu nahi zen, kontsumismoa alde batera utziz," aipatu digute Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Sailetik.

"Aurten, aldiz, Eguberrietako sukaldaritza ere errezetei garrantzia eman zaie, gastro-

nomiak gure gizartean sortzen duen interesagatik eta egun gauden egoera ekonomikoak guk iaz sustatzen genuen kontsumo arduratsua eta arrazoizko hori bideratzen duela uste baitugu," gaineratu dute.

Jardunaldiak

Era honetara, Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Sailak Eguberrietako sukaldaritza errazeko jardunaldiak antolatu ditu hurrengo asteko astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 19:00etatik aurrera kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Lau egun hauetan herriko bi jatetxek, *Goiegi* eta *Dana Ona*, eta bi komertziok *Ormazabal Loradenda* eta *Labe Goxo* okindegia eta gozotegiak Eguberrietarako proposamenak emango dituzte.

Gainera, iaz ez bezala, herriko bi jatetxeetako sukaldariek, errezetak nola egin erakutsiko dute hitzaldi aretoan jarriko den sukaldari esker.

Proposamenak

Ondoan azaltzen dugun bezala, astelehenean, Ormazabal loradendako lagunek etxea, Eguberrietako zuhaitza eta mahaia apaintzeko ideiak emango dituzte.

Goiegi jatetxeko Juan Luis Eizmendi sukaldariek, berriz, menu erraza prestatuko du asteartean, *Txirlak eta muskuiluak barazkiekin, marinela saltsan* eta *Bakailao-carpaccio*.

Asteazkenean *Dana Ona* jatetxearen txanda izango da. *Erromes-maskorra neguko boilurrarekin* eta *Pagausoa bi egosalditan* prestatuko ditu Alberto Rodriguez sukaldariek.

Eta, azkenik, askarrietan bezala, postre gozoak, *Esne-gain eta intxaurrekin* eta *Mazapanezko irudiak*, nola egin erakutsiko du *Labe Goxo* okindegia eta gozotegiak Jose Manuel Acedo.

Beraz, animatu eta gerturatu kultur etxera, asko ikasiko duzue eta!

Eguberrietarako sukaldaritza errazeko jardunaldien egitaraua

Kultur etxeko hitzaldi aretoan, 19:00etan

Abenduaren 14an, astelehena

Gure eguberria apaintzeko ideiak

Ramón Ormazabal lore-saltzailea
Ormazabal Loradenda



Abenduaren 15ean, asteartea

Txirlak eta muskuiluak barazkiekin, marinela saltsan
Bakailao-carpaccio

Juan Luis Eizmendi Sukaldariek
Goiegi Jatetxea



Abenduaren 16an, asteazkena

Erromes-maskorra neguko boilurrarekin
Pagausoa bi egosalditan

Alberto Rodríguez Sukaldariek
Pilar Arteaga Aretoburua
Dana Ona Jatetxea



Abenduaren 17an, osteguna

Esne-gain eta intxaurrekin
Mazapanezko irudiak

José Manuel Acedo Gozogilea
Labe Goxo okindegia eta gozotegiak



Aurreko edizioetan bezala, sukaldaria jarriko da hitzaldi aretoan jatetxeek errezetak nola egin bertan azaldu dezaten.

gabonetako txokoak

MOZORROAK




SUKALDARITZA

Bi aukera dituzue, aste bat edo biak!

Ttakun • Geltoki kalea 4 • 943 371448
www.ttakun.com • aisia@ttakun.com





Kalitate turistikoaren 'Q'a

“Kalitatezko zerbitzu baten irudia emateaz gain, kalitatezkoa ere behar du”

Zeintzuk dira turismoarekin lotura duten kalitate-sistema eta programen aldeko apustua egiteko arrazoi nagusiak?

Informazio eta harrera departamentuetan, zein Convention Bureauan, Q kalitate Turistikoaren ezartzearen arrazoi garrantzitsuena, barneko kudeaketa hobetzen duela izan da.

Izan ere, bertako langilego osoa inplikatzeko bada, bezero-arekiko arreta ere hobetzen da.

Zuen erakundeari zer nolako abantailak eman dizkio kalitate turistikoaren ziurtagiri sistema izateak?

Prozesuan egon daitezkeen gertakariak azkar eta modu eraginkorren antzematen laguntzen digu, aurre-ikusteko eta zuzentzeko neurriak errazago ezartzea ahalbidetuz, eta horrela, gure bezeroei zerbitzu onena eskainiz.

Zeintzuk dira erakundearen barne antolakuntzan, kudeaketan eta azpiegiturretan hobekuntza nagusiak?

Alde batetik, erakundeko pertsonal ororen inplikazioa izan dugu proiektu honetan, horrek dakartzan onurekin.

Bestetik, lan instrukzio eta prozesuen sistematizazioari esker, bezeroarekiko jokabide eta praktika onen eredu mini-moak ezarri ditugu.

Eta azkenik, azpiegituriei dagokionez, aniztasun funtzionalari dagozkion arloak kontuan eduki dira, adibidez, kiribil magnetikoa martxan jarri, urritasuna jasaten duten pertsonentzako arreta gune berezia ezarri eta abar.

Bezeroaren gogobetetzea helburu duten hobekuntzak ere txertatu dituzue...

Bezeroen iradokizun-proposamen eta inkestaren sistema bat ezarri da. Hauen asetasunean zuzenean eragiten duten arlo ezberdinei buruz galdetzen zaie eta lortutako emaitzei begiratu, zerbitzua hobetzeko beharrezko neurri edo erantzunak jartzen dira martxan.

Zer esango zenieke turismoan ari diren profesionalen Kalitate turistikoaren "Q" a lortzearen garrantziak jabetu eta haren



Manu Narvaez, Donostia Turismoko zuzendari-gerentea

bila abiatu daitezten?

Kalitate Turistikoaren sistema integralarekin lanean dihardu Donostia Turismok, beti ere, helmuga gisa hobekuntzak lortzeko. Helburua, bere kalitate-erengatik ezaguna edota ezagutzeko modukoa den helmuga bat da lortzea da, horretarako erakundearen egitura ezberdinetan Jokabide On eta Egokien Gidaliburuak txertatu eta helmuga horren turismo baliabide ezberdinei bultzada emanaz.

Enpresariei gomendatuko al zenieke kalitate ziurtagiria duten sistemaren batekin lan egiteko?

Duda izpirik gabe. Barneko antolakuntzaren hobekuntza lortzeaz gain, gure bezeroen benetako beharrak kontuan hartzea erabaten gaitu, eta horrela, hauen beharretara moldatzeko aukera izango dugu.

Q ziurtagiria jartzeko prozesuak zure erakundearen lehiakortasuna areagotzen duela uste al duzue?

Dudarik gabe. Gaur egun, kalitatezko zerbitzu baten irudia emateaz gain, kalitatezko zerbitzua eskaini behar da. Egun bizi dugun inguru eta egoeran, kalitate ziurtagiriek abantailarekin lehiatzeko aukera eskaintzen dute.

Kudeaketa planean landu eta ezarritako kompetentziatik, zeintzuk nabarmenduko zenuzuzke?

Bezeroaren betetasunarekiko interesa, eta hobekuntzaren bideko kultura gehienbat.

Kalitatearen kultura zabaltzeko, zein aldaketa txertatu duzue jada eta zein txertatzeko asmoa duzue?

Sistemaren berrikusketa iraunkorra, hau da, Q kalitate ziurtagiriak derrigortzen dituen prozesu guztien etengabeko berrikuste eta egokitzapenak.

Gainera, SICTED programari esker, gure helmugaren kalitatearekin konprometua dugu, kalitatezko helmuga bikaina eskaini ahal izateko helmugaren kalitatearen hobekuntza kudeatzen duen erakunde gisa ari gara lanean. •

Eusko Jaurlaritzak "Basquetour" Euskal Turismo Agentziarekin batera, eta Euskalitekin elkarlanean, enpresariari esku jarri ditu hainbat baliabide eta beharrezko den laguntza lehiakortasunean irabazteko, honako programa hauen bitartez:

- **Jarduera onak**
Kalitatearekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa, turismo sektoreko profesionalen zuzenduta.
- **Kalitate Turistikoaren Q programa**
Kalitate kudeaketa sistemaren ziurtagiria. Bezeroen satisfakzioa aurreikuspenak beteko dituzten bermea.
- **EFQM bikaintasunaren eredu**
Kalitatearekiko bikaintasuna antolatzaileen eskura uzten duen programa.

JAR EZAZU KALITATE TURISTIKOAREN Q-A ZURE MERKATALGUNEAN

94 607 75 86 / 94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net / www.euskalit.net



turismoaren euskal agentzia
agencia vasca de turismo

Herri-baltza

EUSKO JAURLARITZA



Sociedad Pública del

GOBIERNO VASCO



Kiroletako agenda

FUTBOLA I

Larunbata 12

10:00etan, Ostadar-Luberri (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinen.
11:30etan, Ostadar-Kostkas M.B. (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Michelinen.
13:00etan, Ostadar-Sanse (Partehartze infantilak) Michelinen.
15:30etan, Texas Lasartearra-Sanse (I. Jubenila) Michelinen.
17:15etan, Texas Lasartearra-Hernani (I. Erregionala) Michelinen.

12:00etan, Hernani Real Tanager-Ostadar (I. Jubenila) Zubipe, Hernanin.
17:30etan, Amara Berri-Ostadar (Erregional Gorena) Martutene, Donostian.
18:30etan, Elgoibar-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igogera fasea) Mintxeta, Elgoibarren.



Igandea 13

10:30etan, Ostadar-Añorga (I. Kadetea) Michelinen.
10:00etan, Tolosa-Ostadar (Alebinak) Zubipe, Hernanin.
11:30etan, Hondarribia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Ondartza, Hondarribin.
17:30etan, Amara Berri-Ostadar (Emakumezko Erregionala) Martutene, Donostian.

FUTBOL 7 I

Larunbata 12

16:00etan, Spartak de Obelix-Paulaner Trintxerpe (III. Maila) Cesar Benito, Donostian.

ARETO-FUTBOLA I

Larunbata 12

17:45etan, ISU Leihoak-Zarautz (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.
19:15etan, Euskalduna-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Allurralde, Andoainen.

HERRIKO TXAPELKETA
Michelingo areto-futboleko gunean
Ostirala 11
20:30etan, Danena-Buenetxea

Larunbata 12

09:15etan, Naiban-Ilargi
10:15etan, Izkiña-Goiz Argi
11:15etan, IOB H.K.-JSU Leihoak
12:15etan, Epel-Obelix
13:15etan, Biyona-Siglo XX
15:00etan, Viña del Mar-Morrison
16:00etan, Lekuona Mena-Mingallon
17:00etan, Izarra-Jalai

Igandea 13

10:00etan, Okela-Ainhoa
11:00etan, Tragoxka-Oria kris.

SASKIBALOA I

Larunbata 12

20:00etan, Zarautz-Jalai (Gizonezko seniorrak) Antoniano kiroldegian, Zarautzen.

PILOTA I

Larunbata 12

16:00etan, Gazteleku 2-Intza 2 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Michelinen.
16:00etan, Antiguako 4-Intza 3 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Michelinen.
17:30etan, Intza-Mundarro (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.
10:00etan, Mundarro 2-Intza (Eskuz banaka II. Seniorra) Irurako Trinketa, Iruran.
16:00etan, Intza 5-Urnieta 2 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.
16:00etan, Intza 6-Hernani 4 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

ATLETISMOA I

Larunbata 12

17:00etan, LOKEko atletiek partaidetza mugabeko probetan parte hartuko dute Anoetako belodromoan.



IGERIKETA I

Larunbata 12

16:00etan, Buruntzaldeko Igeriketa Taldeko gaztetxoek San Esteban Sarian parte hartuko dute, Oiartzunen.



Abenduaren 23ra arte egongo da Ostadarreko bazkide kanpaina irekia. Animatu eta egin bazkide. Arg.: Itziar Carrasco

Ostadar Kirol Fundazioak bazkide kanpaina hasi du

Ostadar Kirol Fundazioak aste honetan 2010. urteko bazkide kanpainari ekin dio. Elkarte lasarteoriatarrek 27 urte daramatza herriko kirola sustatzen eta elkarteko ordezkariak esan dutenez, "kirol egitasmo honekin jarraitu ahal izateko bazkideen babesa eta laguntza ezinbestekoa da. Horregatik, urtero bazkide kanpaina kaleratzen dugu." Era honetara, Ostadarreki kirol egitasmo honen partaidea izatera gonbidatzen ditu

herritar guztiak. Bazkide txartela egin nahi duenak elkarteak Geltoki Kalea 25 zenbakian duen egoitzan egin behar du, astelehenerdik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Bazkide egiteko azken eguna abenduak 23a izango dela ohartarazten du kirol elkarteak. **Ostarraren zozketa** Honetaz gain, urtero bezala,

Ostadarrek otar bat zozketatuko du bazkide guztien artean. Beraz, guztiak adi abenduaren 23an 20:00etan, Ostadarreko ateetan eta www.ostadarkf.org helbidean zenbaki irabazlea jarriko baitu elkarteak. **Bulegoa itxia** Era berean, Ostadarretik jakinarazi dute bulegoa itxita egongo dela Gabon bezperatik, abenduaren 24tik urtarriaren 10era arte. •

Kirol instalazioak urte osoan alokatzeko aukera emango du Kirol Zerbitzuak

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak 2010 urtean Kirol Guneko frontoia eta pista, kiroldegiko pista edo trinketa urte osoan zehar, uztaila eta abuztua izan ezik, zenbait ordu eta egunetan alokatzeko aukera eskaintzeko asmoa du jakin arazi duenez. Eskainiko diren orduak eta erabiliko diren arauak ezagutu nahi dutenek dagokien instalazioen kontsulta egin dezakete. Interesa duten erabiltzaileek eskaera egin behar dute, izena, abizena, telefono zenbakia, abonua zenbakia eta eskatu nahi duen eguna eta ordua esanaz, alokatu nahi duten instalazioaren harreraren. Abenduaren 20a da eskaera egiteko azken eguna. Izan ere, orduen banaketa zozketa bidez egingo baita, abenduaren 21ean 19:00etan Udal Kiroldegian. •



Besteak beste, trinketa urte osoan alokatzeko aukera izango dute herritarrek.

Alex Tetuan Argentinan hiru aste egon zen udaberrian paraje naturaletaz gozaten

"Ezin da maitatu ezagutzen ez dena"

Apirilean abiatu ziren Argentinara Nekane Atxaga, Joxe Goikoe-txea, Josune Lizeaga eta Alex Tetuan. Azken honekin egon gara, bidaiaren nondik norakotan bustitzeko. Hemen udaberrian ginen bitartean, udazkenera egin zuten salto. Eguraldi ona, beroa, 30º ingurukoa, eta Patagonian, elurra. Tenperatu aldaketa ikaragarri honek, ez zizkien Argentinak dituen paraje natural ederretaz disfrutatzen gogoak gutxitu. Iparraldean, hegoaldean, puntu batetik bestera 5.000 kilometroko distantzia duen lurralde hau hiru astetan zeharkatu zuten.



"Perito Moreno kontatzen dizutena baino ikusgarriagoa da" dio Alexek.



Iguazu kataratak, lantxa hauei esker behetik pasa zaitzake.

Zergatik Argentinara?

Hizkuntzaren aldetik ez zizkigu mugarik ezartzen, eta hori lagungarria da oso. Komunikatu ahal izatea paregabea da. Honetaz gainera, mendizaleak gara, eta mendizale batentzat paraje ikaragarriak daude bertan; Iguazu, Usuaya, Perito Moreno... Argazkiak ikusita genituen,

baina han egotea ... zirraragarria da oso!

Ba al dago hiru astetan Argentinan ikusterik ?

Oso handia da, ez du denborarik ematen. Puntu konkretu batzuk eraman genituen erabakita, eta horretara mugatu ginen. Argentinan Amerikako bigarren nazio zabalena da, iparretik hegoaldera 5.000

kilometro daude. Desplazamenduak hegazkinez egin behar izan genituen, eta leku bakoitzean 3-4 egun egon.

Nolakoa da bertako bizimodua?

Bi eremu bereizi behar dira; hiriko jendea eta herrietakoa. Hiriko biztanleak estresatuta bizi dira, kaletik ikaragarriko abailan ibiltzen dira. Errez antzematen dira turistak Bue-

nos Airesen, kalean zerbait begiratzeko gelditzen diren bakarrak baitira. Herrietan aldiz, askoz lasaia bizi dira. Ereku zabalak, basatiak, kutsadura gutxi, zerua oso garbi aurkitzen duzu. Hemen go panoramaren isla.

Ze esperientzia ekarri dizu Argentinan egoteak?

Gure ingurua jaten eta eralda-

tzen ari gara. Argentinak bere paraje naturalak mantentzen ditu, eta guk gurearekin jarraituz gero, hemendik urte batzuetara, han bakarrik ikusi ahal izango ditugu.

Alex Tetuani eginiko elkarrizketa osoa gure web orrialdean irakurri ahal izango duzue: www.txintxarri.info helbidean.

BIGAREN ESKUKO MERKATUAK 2009

Zatoz merkatuak ezagutzera, gauza erabilgarri ugari aurkituko dituzue

M2SM
merka2sanmarcos



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gangun Itzaltzerako Departamentua
Departamento de Desarrollo Sostenible



SAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

Berrerabilera sustatuz hondakin gutxiago sortzen dugu

Parte hartu!

Erreserbatu salmenta / truke postu bat Norbanakoak, elkarreak, ikastetxeak, dendak... guztientzat egongo da lekua!

BERRIKUNTZA!

Gordailu-salmenta

Merkatu egunetan, lehen orduan, zure gauzak ekarri eta antolakuntzako lantaldeak zaindu eta salduko dizkizu.

Ondoren, 13:45ean, salmentaren berri izatera etor zaituzte. Mota guztietako objektuak onartuko dira (arropa eta tamaina handikoak izan ezik).

DATA	UDALERRIA	LEKUA	EGURALDI TXARRAREKIN
azaroa	7	PASAIA	Gure Zumardia plaza
	8	URNIETA	San Juan plaza
	15	ERRENTERIA	Gamon Zumardia
	21	DONOSTIA	Urdaneta kalea Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan
	22	LEZO	Euskal Herria plaza
	28	HERNANI	Atsegindegiko plaza
abendua	29	USURBIL	Dema plaza
	5	DONOSTIA	Urdaneta kalea Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan
	6	OIARTZUN	Done Eztebe plaza
	13	LASARTE-ORIA	Dorre parkea
	19	ASTIGARRAGA	Barandiaran plaza

ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00

Salmentak
Trukeak
Opariak
Bilaketak

Hondakin gutxiago
sortzeko informazio
gune berezia



INFORMAZIOA eta ERRESERBAK
943 67 02 49

www.merka2sanmarcos.org

